

Convenio sobre el derecho de sindicación y de negociación colectiva, 1949 (N° 98)

La Conferencia General de la Organización Internacional del Trabajo: Convocada en Ginebra por el Consejo de Administración de la Oficina Internacional del Trabajo, y congregada en dicha ciudad el 8 junio 1949 en su trigésima segunda reunión;

Después de haber decidido adoptar diversas proposiciones relativas a la aplicación de los principios del derecho de sindicación y de negociación colectiva, cuestión que constituye el cuarto punto del orden del día de la reunión, y

Después de haber decidido que dichas proposiciones revistan la forma de un convenio internacional,

adopta, con fecha primero de julio de mil novecientos cuarenta y nueve, el siguiente Convenio, que podrá ser citado como el Convenio sobre el derecho de sindicación y de negociación colectiva, 1949:

Artículo 1

1. Los trabajadores deberán gozar de adecuada protección contra todo acto de discriminación tendiente a menoscabar la libertad sindical en relación con su empleo.
2. Dicha protección deberá ejercerse especialmente contra todo acto que tenga por objeto:
 - a) sujetar el empleo de un trabajador a la condición de que no se afilie a un sindicato o a la de dejar de ser miembro de un sindicato;
 - b) despedir a un trabajador o perjudicarlo en cualquier otra forma a

Sindikatu kide egiteko eskubideari eta negoziatio kolektiboari buruzko Hitzarmena, 1949 (98. zk.)

Lanaren Nazioarteko Erakundearen Konferentzia Orokorrak:

Deitua izanik Lanaren Nazioarteko Bulegoaren Administrazio Kontseiluak Genevan egiteko, eta hiri horretan bilduta 1949ko ekainaren 8an, hogeita hamabigarren bileran;

Erabaki ondoren, sindikatuko kide egiteko eskubidearen eta negoziatio kolektiboaren printzipioak aplikatzeari buruzko hainbat proposamen onestea, bileraren aztergaien laugarren puntua dena, eta;

Erabaki ondoren proposamen horiek nazioarteko hitzarmen forma izatea,

mila bederatziehun eta berrogeita bederatziko uztailaren 1ean, ondorengo Hitzarmena onetsi zuen. Hitzarmen hori honako izen honekin ezagutzen da: Sindikatuko kide egiteko eskubideari eta negoziatio kolektiboari buruzko Hitzarmena, 1949:

1. artikulua

1. Langileek babes osoa izango dute bereizkeria-egintza ororen aurrean, egintza horrek euren enpleguari dagokion sindikatu-askatasuna gutxiesten badu.
2. Babes hori erabiliko da bereziki egintza ororen aurka, egintza horren xedea bada:
 - a) langile baten enplegua baldintzapean jartzen bada, baldintza hori izanik edo sindikatu baten kide ez egitea edota sindikatu zehatz baten kide izatea bertan behera uztea;
 - b) langilea kaleratzea edo beste edozein modutan kaltetzea, sindikatuko

causa de su afiliación sindical o de su participación en actividades sindicales fuera de las horas de trabajo o, con el consentimiento del empleador, durante las horas de trabajo.

Artículo 2

1. Las organizaciones de trabajadores y de empleadores deberán gozar de adecuada protección contra todo acto de injerencia de unas respecto de las otras, ya se realice directamente o por medio de sus agentes o miembros, en su constitución, funcionamiento o administración.

2. Se consideran actos de injerencia, en el sentido del presente artículo, principalmente, las medidas que tiendan a fomentar la constitución de organizaciones de trabajadores dominadas por un empleador o una organización de empleadores, o a sostener económicamente, o en otra forma, organizaciones de trabajadores, con objeto de colocar estas organizaciones bajo el control de un empleador o de una organización de empleadores.

Artículo 3

Deberán crearse organismos adecuados a las condiciones nacionales, cuando ello sea necesario, para garantizar el respeto al derecho de sindicación definido en los artículos precedentes.

Artículo 4

Deberán adoptarse medidas adecuadas a las condiciones nacionales, cuando ello sea necesario, para estimular y fomentar entre los empleadores y las organizaciones de empleadores, por una parte, y las organizaciones de trabajadores, por otra, el pleno desarrollo y uso de procedimientos de negociación voluntaria, con objeto de reglamentar, por medio de contratos colectivos, las condiciones de empleo.

kide izateagatik edo laneko orduetatik kanpo edota, enplegatzailearen baimenarekin, laneko orduetan, sindikatu-jardueretan parte hartzeagatik.

2. artikulua

1. Langileen eta enplegatzaileen erakundeek babes osoa izango dute batzuek bestearekiko esku-sartze egintzen aurrean, esku-sartze hori zuzenean nahiz agente edo kideen bitartez egiten bada, halakoen eraketan, jardunbidean edo administrazioan.

2. Artikulu honen arabera esku-sartze egintzak dira, nagusiki, enplegatzaile edo enplegatzaileen erakundearen menpe, langileen erakundeak eratzea sustatzen duten neurriak, edo langileen erakundeei konpentsazio ekonomikoa edo beste mota batekoa ematea, erakundeok enplegatzaile baten edo enplegatzaile erakunde baten menpe egon daitezen.

3. artikulua

Nazio-baldintzei egokitutako erakundeak sortu beharko dira, halakoa beharrezkoa denean, sindikatuko kide egiteko eskubidearen errespetua bermatzeko, aurreko artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

4. artikulua

Nazio-baldintzei egokitutako neurriak hartu beharko dira, halakoa beharrezkoa denean, suspertzeko eta sustatzeko, alde batetik, enplegatzaile eta enplegatzaile erakundeen artean, eta, bestetik, langileen erakundeen artean, borondatezko negoziazioaren garapen osoa eta prozeduren erabilera, kontratu kolektiboen bitartez, enplegu-baldintzak arautzeko xedearekin.

Artículo 5

1. La legislación nacional deberá determinar el alcance de las garantías previstas en el presente Convenio en lo que se refiere a su aplicación a las fuerzas armadas y a la policía.
2. De acuerdo con los principios establecidos en el párrafo 8 del artículo 19 de la Constitución de la Organización Internacional del Trabajo, la ratificación de este Convenio por un Miembro no podrá considerarse que menoscaba en modo alguno las leyes, sentencias, costumbres o acuerdos ya existentes, que concedan a los miembros de las fuerzas armadas y de la policía las garantías prescritas en este Convenio.

Artículo 6

El presente Convenio no trata de la situación de los funcionarios públicos en la administración del Estado y no deberá interpretarse, en modo alguno, en menoscabo de sus derechos o de su estatuto.

Artículo 7

Las ratificaciones formales del presente Convenio serán comunicadas, para su registro, al Director General de la Oficina Internacional del Trabajo.

Artículo 8

1. Este Convenio obligará únicamente a aquellos Miembros de la Organización Internacional del Trabajo cuyas ratificaciones haya registrado el Director General.
2. Entrará en vigor doce meses después de la fecha en que las ratificaciones de dos Miembros hayan sido registradas por el Director General.
3. Desde dicho momento, este Convenio entrará en vigor, para cada Miembro, doce meses después de la fecha en que haya sido registrada su ratificación.

5. artikulua

1. Nazio-legeriak zehaztuko du Hitzarmen honetan aurreikusitako bermeak zein punturaino aplikatuko zaizkien indar armatuei eta poliziarri.

2. Lanaren Nazioarteko Erakundearen Konstituzioaren 19. artikulua 8. paragrafoan ezarritako printzipioekin bat etorriz, kide batek Hitzarmen hau berresteak ez du ekartzen, nahitaez, legeak, epaiak, ohiturak edo jada dauden erabakiak gutxiestea, horiek indar armatuen edo poliziaren kideei ematen badizkie Hitzarmen honek ezarritako bermeak.

6. artikulua

Hitzarmen honek ez du arautzen estatuaren administrazioan diharduten funtzionario publikoen egoera; hartara, ezin izango da interpretatu horien eskubideen edo estatutuaren kalterako.

7. artikulua

Hitzarmen honen berrespen formalak Lanaren Nazioarteko Bulegoko zuzendari nagusiari komunikatuko zaizkio, erregistra ditzan.

8. artikulua

1. Zuzendari nagusiak Lanaren Nazioarteko Erakundeko kideen artetik zeintzuen berrespenak erregistratu eta berrespen horiek egin dituzten kideek bakarrik bete beharko dute hitzarmen hau.
2. Hitzarmena indarrean jarriko da, Zuzendari Nagusiak bi kideren berrespenak erregistratu eta hamabi hilabetera.
3. Une horretatik aurrera, estatu kide bakoitzarentzat, hitzarmen hau indarrean jarriko da, berrespena erregistratu eta hamabi hilabetera.

Artículo 9

1. Las declaraciones comunicadas al Director General de la Oficina Internacional del Trabajo, de acuerdo con el párrafo 2 del artículo 35 de la Constitución de la Organización Internacional del Trabajo, deberán indicar:

- a) los territorios respecto de los cuales el Miembro interesado se obliga a que las disposiciones del Convenio sean aplicadas sin modificaciones;
- b) los territorios respecto de los cuales se obliga a que las disposiciones del Convenio sean aplicadas con modificaciones, junto con los detalles de dichas modificaciones;
- c) los territorios respecto de los cuales es inaplicable el Convenio y los motivos por los cuales es inaplicable;
- d) los territorios respecto de los cuales reserva su decisión en espera de un examen más detenido de su situación.

2. Las obligaciones a que se refieren los apartados a) y b) del párrafo 1 de este artículo se considerarán parte integrante de la ratificación y producirán sus mismos efectos.

3. Todo Miembro podrá renunciar, total o parcialmente, por medio de una nueva declaración, a cualquier reserva formulada en su primera declaración en virtud de los apartados b), c) o d) del párrafo 1 de este artículo.

4. Durante los períodos en que este Convenio pueda ser denunciado de conformidad con las disposiciones del artículo 11, todo Miembro podrá comunicar al Director General una declaración por la que modifique, en cualquier otro respecto, los términos de cualquier declaración anterior y en la que indique la situación en territorios

9. artikulua

1. Lanaren Nazioarteko Bulegoko Zuzendari Nagusiari komunikatutako adierazpenek, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Konstituzioaren 35. artikulua 2. paragrafoarekin bat etorri, ondorengoa jaso beharko dute:

- a) Zein diren Hitzarmenaren xedapenak eraldaketarik gabe aplikatzeko lurraldeak, bertan aplikazio hori egiteko kide interesdunak bere burua behartzen duela;
- b) Zein diren Hitzarmenaren xedapenak eraldaketekin aplikatzeko lurraldeak, bertan aplikazio hori egiteko bere burua behartzen duela eta zein diren eraldaketa horien xehetasunak;
- c) Zein diren lurraldeak, bertan Hitzarmenaren xedapenak aplikaezinak direla eta aplikaezina izateko arrazoiak;
- d) Zein lurraldetan gordetzen duen bere erabakia, hitzarmenaren aplikazioari buruz, lurralde horien egoeraren inguruko azterketa sakonagoa egiteko zain.

2. Artikulu honen 1. paragrafoaren a eta b lerroaldeetan zehazten diren betebeharrak, berrespenaren zatiak izango dira eta horren ondorio berberak sortuko dituzte.

3. Kide orok uko egin diezaioke, osorik edo zati batean, adierazpen berri baten bitartez, bere lehenengo adierazpenean egindako edozein erreserbari, artikulua honen 1. paragrafoaren b, c edo d lerroak den arabera.

4. 11. artikulua xedapenekin bat etorri, Hitzarmen hau salatu daitekeen epealdietan zehar, kide orok Zuzendari Nagusiari adierazpen bat egin diezaioke eta bertan eralda ditzake, beste edozein gairen inguruan, aurreko beste edozein adierazpenetan jarritako baldintzak; era berean, adierazpen horretan lurralde zehatzen egoera

determinados.

Artículo 10

1. Las declaraciones comunicadas al Director General de la Oficina Internacional del Trabajo, de conformidad con los párrafos 4 y 5 del artículo 35 de la Constitución de la Organización Internacional del Trabajo, deberán indicar si las disposiciones del Convenio serán aplicadas en el territorio interesado con modificaciones o sin ellas; cuando la declaración indique que las disposiciones del Convenio serán aplicadas con modificaciones, deberá especificar en qué consisten dichas modificaciones.

2. El Miembro, los Miembros o la autoridad internacional interesados podrán renunciar, total o parcialmente, por medio de una declaración ulterior, al derecho a invocar una modificación indicada en cualquier otra declaración anterior.

3. Durante los períodos en que este Convenio puede ser denunciado de conformidad con las disposiciones del artículo 11, el Miembro, los Miembros o la autoridad internacional interesados podrán comunicar al Director General una declaración por la que modifiquen, en cualquier otro respecto, los términos de cualquier declaración anterior y en la que indiquen la situación en lo que se refiere a la aplicación del Convenio.

Artículo 11

1. Todo Miembro que haya ratificado este Convenio podrá denunciarlo a la expiración de un período de diez años, a partir de la fecha en que se haya puesto inicialmente en vigor, mediante un acta comunicada, para su registro, al Director General de la Oficina Internacional del Trabajo.

La denuncia no surtirá efecto hasta un año después de la fecha en que se

azaldu dezake.

10. artikulua

1. Lanaren Nazioarteko Bulegoko Zuzendari Nagusiari eginiko adierazpenek, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Konstituzioaren 35. artikulua 4 eta 5. paragrafoekin bat etorritik, adierazi beharko dute Hitzarmenaren xedapenak eraldaketekin edo eraldaketarik gabe aplikatuko diren haren lurraldean; era berean, adierazpenak zehazten duenean Hitzarmenaren xedapenak eraldaketekin aplikatuko direla, eraldaketa horiek zertan diren zehaztu beharko da.

2. Hitzarmen honen kideak, kideek edo nazioarteko agintaritza interesdunek uko egin diezaiokete, osorik edo zati batean, gero adierazpen baten bitartez, aurretiazko beste edozein adierazpenetan adierazitako eraldaketa bat aipatzeko eskubideari.

3. 11. artikulua xedapenekin bat etorritik, Hitzarmen hau salatu daitekeen epealdietan zehar, kideak, kideek edo nazioarteko agintaritza interesdunak Zuzendari Nagusiari adierazpen bat egin diezaiokete eta bertan eralda ditzakete, beste edozein gairen inguruan, aurreko beste edozein adierazpenetan jarritako baldintzak; era berean, adierazpen horretan lurralde zehatzen egoera azaldu dezakete, hitzarmenaren aplikazioari buruz.

11. artikulua

1. Hitzarmen hau berretsi duen kide orok hori salatu ahal izango du, hitzarmena estreinakoz indarrean jarri zenetik zenbatzen hasi eta hamar urteko epealdia amaitu ondoren, Lanaren Nazioarteko Bulegoko zuzendari nagusiari salaketa hori erregistratzeko akta komunikatuz.

Salaketak ez du ondorerik izango, salaketa erregistratu eta urtebete igaro

haya registrado.

2. Todo Miembro que haya ratificado este Convenio y que, en el plazo de un año después de la expiración del período de diez años mencionado en el párrafo precedente, no haga uso del derecho de denuncia previsto en este artículo quedará obligado durante un nuevo período de diez años, y en lo sucesivo podrá denunciar este Convenio a la expiración de cada período de diez años, en las condiciones previstas en este artículo.

Artículo 12

1. El Director General de la Oficina Internacional del Trabajo notificará a todos los Miembros de la Organización Internacional del Trabajo el registro de cuantas ratificaciones, declaraciones y denuncias le comuniquen los Miembros de la Organización.

2. Al notificar a los Miembros de la Organización el registro de la segunda ratificación que le haya sido comunicada, el Director General llamará la atención de los Miembros de la Organización sobre la fecha en que entrará en vigor el presente Convenio.

Artículo 13

El Director General de la Oficina Internacional del Trabajo comunicará al Secretario General de las Naciones Unidas, a los efectos del registro y de conformidad con el artículo 102 de la Carta de las Naciones Unidas, una información completa sobre todas las ratificaciones, declaraciones y actas de denuncia que haya registrado de acuerdo con los artículos precedentes.

Artículo 14

Cada vez que lo estime necesario, el Consejo de Administración de la Oficina Internacional del Trabajo presentará a la Conferencia General una memoria sobre la aplicación del Convenio y considerará la conveniencia de incluir

arte.

2. Hitzarmen hau berretsi duen kide orok, aurreko paragrafoan aipatu hamar urteko epealdia amaitu ondoren, urtebeteko epean artikulu honetako salaketa-eskubidea egikaritzen ez badu, beste hamar urtez bete beharko du hitzarmena, eta, aurrerantzean, hitzarmena salatu ahal izango du hamar urteko aldi bakoitza amaitzean, artikulu honetan ezarritako baldintzetan.

12. artikulua

1. Lanaren Nazioarteko Bulegoko Zuzendari Nagusiak Lanaren Nazioarteko Erakundeko kide guztiei jakinaraziko dizkie erakundeko kideek komunikatutako berrespen, adierazpen eta salaketa guztien erregistroak.

2. Zuzendari Nagusiak berari komunikatu beharreko berrespenetatik bigarrenaren erregistroa jakinarazten dienean erakundeko kideei, abisua emango die kide horiei, hitzarmen hau indarrean jartzeko dataren inguruan.

13. artikulua

Lanaren Nazioarteko Bulegoko Zuzendari Nagusiak, erregistro-ondorioetarako eta Nazio Batuen Gutunaren 102. artikuluekin bat etorritik, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari informazio osoa jakinaraziko dio, aurreko artikuluekin bat etorritik erregistratu dituen berrespen, adierazpen eta salaketa-akta guztien gainean.

14. artikulua

Lanaren Nazioarteko Bulegoko Administrazio Kontseiluak, egokitze jotzen duen bakoitzean, Konferentziari hitzarmenaren aplikazioari buruzko oroitidazkia aurkeztuko dio, eta gogoeta egingo du konferentziaren eguneko

en el orden del día de la Conferencia la cuestión de su revisión total o parcial.

Artículo 15

1. En caso de que la Conferencia adopte un nuevo convenio que implique una revisión total o parcial del presente, y a menos que el nuevo convenio contenga disposiciones en contrario:

a) la ratificación, por un Miembro, del nuevo convenio revisor implicará, ipso jure, la denuncia inmediata de este Convenio, no obstante las disposiciones contenidas en el artículo 11, siempre que el nuevo convenio revisor haya entrado en vigor;

b) a partir de la fecha en que entre en vigor el nuevo convenio revisor, el presente Convenio cesará de estar abierto a la ratificación por los Miembros.

2. Este Convenio continuará en vigor en todo caso, en su forma y contenido actuales, para las Miembros que lo hayan ratificado y no ratifiquen el convenio revisor.

Artículo 16

Las versiones inglesa y francesa del texto de este Convenio son igualmente auténticas.

aztergaien zerrendara biltzeko komenigarritasunari buruz, zer eta, hitzarmena oso-osoa edo zati batean berrikusteko aukera.

15. artikulua

1. Konferentziak hitzarmen hau oso-osoa edo zati batean berrikusten duen hitzarmen berria eginez gero, eta hitzarmen berri horrek aurkako xedapenak izan ezean:

a) Kide batek berrikuspen-hitzarmen berria berrestek berarekin ekarriko du, ipso iure, hitzarmen honen berehalako salaketa, 13. artikuluan jasotako xedapenak gorabehera, betiere, berrikuspen-hitzarmen berria indarrean jarri bada;

b) Berrikuspen-hitzarmen berria indarrean zein datatan jarri eta data horretatik aurrera hitzarmen honek irekia izateari utziko dio, kideek berau berresteari dagokionez.

2. Edozein kasutan ere, hitzarmen honek indarrean jarraituko du, gaur egungo forma eta edukiekin, berau berretsi eta berrikuspen-hitzarmena berretsi ez duten kideei begira.

16. artikulua

Hitzarmen honen testu ingelesa eta frantsesa kautoak dira maila berean.